



***Kultura emaitza fondoaren sortzearekin,  
Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionala eta Euskal Kultur Erakundea  
partaidetza berri batean engaiatzen dira,  
Euskal Herria « irabaziarazi » nahi duten guzietan irekia !***

*Baiona, 2011ko ekainaren 22a*

***Jean-Michel Barate***  
*Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionaleko  
Lehendakaria*

***Mikel Erramouspe***  
*Euskal Kultur Erakundeko  
Lehendakaria*



## **Lurralde beraren kultur aniztasuna emaitza fondo beraren bitartez sustengatzea**

Maizegi entzuten da Euskal Herriko kultur aniztasuna herritarren zatikatze faktore bat dela. Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazional eta Euskal Kultur Erakundearentzako emaitza fondo bakar baten sortzeak alderantzikoa frogatu nahi du. Emaitza fondo horri esker, emaitza (enpresa pribatu, pertsona) gradu berean – eta aldi berean – laguntzen ahalko dituzte euskal kultura eta beste kultur adierazpenak.

Hala *Kultura* emaitza fondoak Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionalak eta Euskal Kultur Erakundeak eramanen dituzten ekintzen garapenean parte hartzen ahalko du. Ber denboran, bi kultur instituzioei interesatuko zaizkien proiektu berrien azalera sustatuko du.

## ***Kultura* : finantzaketa publikoak osatzea Euskal Herriko “indar bizien” parte hartzeari esker**

Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionalaren eta Euskal Kultur Erakundeak batera sortzen dute *Kultura* emaitza fondoa, honako xede honekin : finantzaketa publikoak osatzea emaitza fondo partekatu horrek bilduko dituen ekarpen pribatuei esker.

Emaitza fondoa, nasaitasun mota guztiak (dohaintza, legatu, eskuz egindako emate, bizi aseguru, eskuzabaltasun publikorako dei,...) eskuratzeko gai den fundazio baten gisan ariko da.

*Sortzaileak<sup>1</sup> eta emaileen ordezkariak elkartzen dituen  
Administrazio Kontseilu batek zuzendurik,  
« diru-emaitza fondoak » arte eta kultur asmo handiak sostengatu nahi ditu **Euskal Herrian  
emaileen ekarpenari esker.**  
Horren truke, azken horiek **abantaila joriak** eskuratuko dituzte.*

---

<sup>1</sup> Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionala, Euskal Kultur Erakundea

## Abantaila fiskalak eta ordainsariak emaile guzientzat

Emaitza fondoari utzitako dohaintzak eta legatuak mutazio eskubidetik libratuak dira.

Gainera, eskudiruzko ekarpen eta antzekoetarako hiru sustengu mota aurreikusten dira :

### A/ « Partaide » gisako atxikitzea (pertonentzat soilik)

« Partaide » gisa *diru*-emaitza fondoari atxikitzeke prezioa 100 eurotan gutxienez finkatua da 2011/2012 sasoirako (2011ko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31 arte).

100 euroko atxikitzea oinarritzat hartuz, emaileak honako abantaila hauek izanen ditu :

errentaren gaineko zergaren beherapena, 66 eurotan finkatua, hau da, isuritako diru-kopuruaren % 66<sup>2</sup>.

- atxikitzearen ordain, 25 eurorainoko « opariak » eskainiko zaizkio (ikuskizunetarako sartzeak, katalogoak...), hau da, isuritako diru-kopuruaren % 25<sup>3</sup>.
- Atxikitzearen hondar-kostua, beraz, 9 eurokoa baizik ez da, abantaila fiskalak eta ordainsariak kendu eta gero<sup>4</sup>.

### B/ « Partaide Handi » gisako atxikitzea (enpresentzat soilik)

« Partaide Handi » gisa *Kultura* emaitza fondoari atxikitzeke prezioa 2.000 eurotan gutxienez finkatua da<sup>5</sup> 2011/2012 sasoirako (2011ko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31 arte).

- 2.000 euroko atxikitzea oinarritzat hartuz, mezenasak honako abantaila hauek izanen ditu :
- 1.200 euroko zerga beherapena, hau da, isuritako diru-kopuruaren % 60<sup>6</sup>.

atxikitzearen ordain, 500 eurorainoko « opariak » eskainiko zaizkio (ikuskizunetarako sartzeak, katalogoak...), hau da, isuritako diru-kopuruaren % 25.

Atxikitzearen hondar-kostua, beraz, 300 eurokoa baizik ez da, abantaila fiskalak eta ordainsariak kendu eta gero<sup>7</sup>.

### C/ « Partaide Nagusi » gisako atxikitzea (enpresentzat soilik)

« Partaide Nagusi » gisa *Kultura* emaitza fondoari atxikitzeke prezioa 4.000 eurotan gutxienez finkatua da<sup>8</sup> 2011/2012 sasoirako (2011ko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31 arte).

4.000 euroko atxikitzea oinarritzat hartuz, mezenasak honako abantaila hauek izanen ditu :

- 2.400 euroko zerga beherapena, hau da, isuritako diru-kopuruaren % 60<sup>9</sup>.
- atxikitzearen ordain, 1.000 eurorainoko « opariak » eskainiko zaizkio (ikuskizunetarako sartzeak, katalogoak...), hau da, isuritako diru-kopuruaren % 25.

Atxikitzearen hondar-kostua, beraz, 600 eurokoa baizik ez da, abantaila fiskalak eta ordainsariak kendu eta gero<sup>10</sup>.

---

<sup>2</sup> Errenta zergapegarriaren % 20ra mugatua

<sup>3</sup> Pertsonen mezenasgoaren kasuan, ordainsari horiek ez dute 60 €-ko goren muga gainditu behar. Adibide gisa, 500 € ematen duen pertsona bati eskainitako ordainsariak ez du 60 € gainditu beharko.

<sup>4</sup> 100 euro (dohaintzaren zenbatekoa) – 66 euro (zerga beherapena) – 25 euro (ordainsariak)

<sup>5</sup> 4 000 euroraino gehienez

<sup>6</sup> Negozio zifraren % 0,5era mugatua (BEZik gabe)

<sup>7</sup> 2 000 euro (dohaintzaren zenbatekoa) – 1 200 euro (zerga beherapena) – 500 euro (ordainsariak)

<sup>8</sup> 4 000 euroraino gehienez

<sup>9</sup> Negozio zifraren % 0,5era mugatua (BEZik gabe)

<sup>10</sup> 4 000 euro (dohaintzaren zenbatekoa) – 2 400 euro (zerga beherapena) – 1 000 euro (ordainsariak)

## **Administrazio Kontseilua eta Bulegoa**

Emitza fondoaren Administrazio Kontseilua bi kolegioz osatua da :

- kide sortzaileen kolegioa
- kide emaileen kolegioa

Administrazio Kontseiluak urtero hautatzen du bulegoa.

### **A/ Kide sortzaileen kolegioa**

Honela osatua da :

- Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionaleko Administrazio Kontseiluko bi kide : Jean-Michel Barate jauna eta Jean-René Etchegaray jauna
- Euskal Kultur Erakundeko Administrazio Kontseiluko bi kide : Pierre-Paul Berzaitz jauna eta Mikel Erramouspe jauna
- Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionaleko lan taldeko bi kide : Dominique Burucoa jauna eta Roger Goyheneche jauna
- Euskal Kultur Erakundeko lan taldeko bi kide : Maddalen Dupuy anderea eta Pantxoa Etchegoin jauna

### **B/ Kide emaileen kolegioa**

Ahalik eta lasterren, honela osatua izanen da :

- « Partaide » diren emaileen artean hautatu hiru kide
- « Partaide Handi » edo « Partaide Nagusi » diren mezenasen artean hautatu bost kide
- Agintaldiaren iraupena urte batekoa da.

### **C/ Bulegoa**

Hautatu direnak :

- Lehendakaria : Jean-René Etchegaray
- Lehendakariordea : Mikel Erramouspe
- Diruzaina : Maddalen Dupuy
- Idazkaria : Roger Goyhénèche

**Oraindanik,**

*Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionala  
eta Euskal Kultur Erakundea  
interesatua den edozein pertsona edo enpresari  
**argibide gehiago** emateko prest dira.*

*Harremanak :*

*Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionala :  
Roger Goyh n che : 05 59 55 85 05 (rogergoyheneche@snbsa.fr)*

*Euskal Kultur Erakundea :  
Maddalen Dupuy – 05 59 93 25 25 (maddalen@eke.org)*

*2011ko irailean abiatuko den  
**diru-emaitza fondoak**  
xede bikoitza dauka : **baliabideen partekatzea**  
eta **kultura garapen adostua.***

*Baiona, 2011ko ekainaren 22a*

**Dominique Burucoa**

*Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionaleko  
Zuzendaria*

**Pantxo Etxegoin**

*Euskal Kultur Erakundeko  
Zuzendaria*



## Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionala laburbildurik

« Eszenatoki nazionala » deitu labela eskuratzen duten erakundeek zerbitzu publikoko xedeak dauzkate, beren estatutuetan honela zehazturik : « *Nazio mailan eredugarri den arte ekoizpeneko lekutzat agertzea kultura garaikidearen arloetan ; arte adierazpen desberdinak hedatu eta alderatzea sorkuntza garaikideari lehentasuna emanez ; kokatua den eremuan (bai eta departamenduan eta eskualdean ere), sorkuntza artistikoarekiko jokabide berriak sustatzen dituen eta sorkuntza artistikoaren gizarteratzea hobetzen duen kultura garatzeko ekintza batean parte hartzea.* »

Hamazazpi laguneko lan talde bat daukala, Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionala bakarra da Akitania eskualdean. Baiona, Angelu eta Bokaleko hiriek, Kultura eta Komunikazio Ministerioak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrek sustengatua da.

Urtero berrogeita hamar milatik gora ikusle errezibitzen ditu eta ehunka artista profesional ekarrarazten ditu, azken horien ikuskizunak Eszenatoki Nazionalak berak kudeatzen dituen kultur ekipamenduetan (Baionako Antzokia, Bokaleko Paul Vaillant-Couturier gela) edo haren eskura jarri direnetan (Angeluko Baroja zalditegia, Baionako Albizia gela... ) programatuak direlarik.

Sortu zenez geroztik, Baiona-Hego Akitaniako Eszenatoki Nazionala suharki ari da lanean, kalitateko programak eskainiz, publiko berriak « konkistatu », ikusleen osaera soziologikoa ireki eta hedatze eremua zabaltzeko gisan. Herritar guziekin harreman gero eta hertsiago baten mantentzea du helburu.



## Euskal Kultur Erakundea laburbildurik

Euskal kultur erakundea 1990-ean sortua izan da instituzioen diru partaidetzari esker. Hauetan dira kultur ministeritza, Akitania eskualdea, Departamendua eta 146 herri biltzen dituen euskal kulturaren aldeko herriarteko sindikata. Araudien arabera, Euskal kultur erakundeak euskal eta euskarazko adierazpenak bultzatzen dituzten 130 bat elkarte partaideren egitasmoei ematen die lehentasuna.

Halaber, urte anitzetako kultura egitasmoak bultzatzen ditu (Kantuketan, Batekmila,...) eta ahozko ondarearen zaintzeaz eta transmisioaz arduratzen da.

Datozen urteetan, Euskal kultur erakundeak gazteen kultura dinamiken erakusle izango diren sorkuntza eta adierazpide artistikoak lagundu nahi ditu «Hogeit'a» programa berriaren bitartez.